



4 ERREPORTAJEA

Bola-jokoa herritarren zaletasun kuttuna

Larunbatean jokatu da herrian Euskadiko bola-joko txapelketa. Egun hau dela eta, herriak joko honekin izan duen aspaldiko lotura aztertu nahi izan dugu. Izan ere, lasarteoriatarren artean errotutako zaletasuna izan da bola-jokoa. Egun bolatoki bakarra dago gurean baina garai batean sagardotegi bakoitzean bat aurkitzea zen ohikoena. Sebastian Kerejeta, Inaxio Otaegi eta Joxe Zapiain herritarren laguntzarekin egin dugu errepasoa.



Joanes Maiza, Goiener energia kooperatibako lehendakariak energia berriztagarri eta kontsumo era berriei buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Ingurumena zaintzeko egitasmoak

Birziklapen karpa eta Goiner kooperatibaren hitzaldia izan dira herrian

Atzo, Ingurumenaren Nazioarteko eguna zen eta Lasarte-Oriako Udalak honekin bat eginez, Aste Berdea antolatu du aste honetan. Klima aldaketa ardatz izanik, arazo hau gainditzeko gure esku dauden baliabideak izan dira kontutan. Horregatik, aurten birziklapena eta energia berriztagarriak landu dira.

Lasarte-Oriako herritarrek ingurumenaren kontzientzia sustatzeko asmoz, Udalak Aste Berdea ospatu du aste honetan.

Aurten hondakinen gaikako banaketa edo birziklapena landu nahi izan ditu Lasarte-Oriako Udalak "Birziklatu zalantzarik gabe" ekintzarekin.

Horretarako etxeetara eskuorri informatibo bat banatu eta herritarrei informazioa eskaintzeko karpa jarri du.

Asteazken eguerdian, biziklapen informazio karpa izan zen merkatuan.

Hainbat herritar hurbildu ziren informazio eske. Batez ere, edukiontzia horian bota behar diren ontzi eta gauzai buruz galdezka.

Gaur arratsalden berriz, 16:00etatik 20:00etara Okenon izango da. Honetan informazioa eskaintzeaz gain, herriko haurrek birziklapen jokoan edo txapa tailerlean parte hartu ahaliko dute.

Energia

Honetaz gain, energia berriztagarriak ere landu nahi izan ditu Udalak eta Goiener energia kooperatibak, Kultura



Birziklapen informazio karpa izango da gaur arratsaldetan ere Okendo plazan.

sailak sustatuta, asteazkenean hitzaldia eskaini zuen Manuel Lekuonan.

Gaur egungo energi sistema eta bere funtzionamendua, honen krisia eta ondorio klimatikoak aztertu zituzten.

Egun dauden energia berriztagarriak aipatu eta Europako eta Estatuko hainbat herrietan sortzen ari diren energia kooperatibei buruz

hitza egin zuten. Era berean, Goienerren funtzionamendua ere azaldu zuten.

Usurbilgo Lanbide eskolako zuzendariak, Patxi Vaquerizok kooperatiba babestearen zergatia azaldu zuen. Kooperatibako bazkide diren iritzia ere entzun ahal izan zen hitzaldian. Herritarrek galderak egiteko tarteak ere izan zuten.



Igandean 10:00etatik aurrera GURE ESKU DAGO giza-katea zuzenean jarraitu ahal izango da txintxarri.info atarian Ez galdu!

UDAKO ESKAINTZA 2014

ikasi euskara eman izena aek-n

aek-k hitza ematen dizu euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzula

• 100 orduko klaseak, uztaila-iraila
• Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA)
• Euskalduntzeko maila guztiak
• Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
 Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org
www.muntteri.blogspot.com.es

Neure kabuz



Jexux Artetxe

Autodeterminazioa

Iraganeko herria ginela geroak esan ez zezan, hats bizigarria eten gabe eman diezaigugula eskatu zigun Orixe zenak. Atsedetik gabeko patua, alajainkoa! Txikien artean ere txikia izanik, are-riok prestatutako azpijoko, eraso eta desafioak nola edo hala ekidin edo gaudituz, aurrerabidea aurkitzea. Mendeetan zehar, egoerarik larrienean ere hartu dugun jarrera tinkoa eta zuhurra baino hobea gure herri izaera adierazi eta bereizteko. Halaxe da, jai ginenetik biziarena ohi dugu auzi nagusiena. Auzi iraunkorra, txanpona airera bota gabe ebatzi izan duguna. Horregatik, aurrerantzean ere, une eta ekitaldi bakar batean erabaki ezin den auzia.

Lehenengo asteko ostegunean Legebiltzarra egin zuen bilaren harira dator aurretik esandako guztia. Bertan, eusko legegileek 1990ean aitortutako autodeterminazio eskubidea berretsi dute. Nerretzat, orduko erabaki hura autogobernua sakontzeko eman beharreko urratsen adierazpide egokia litzateke orain ere. Gure buruaren jabe izateko eskukotasuna geurea dela azaltzeaz gain, arian-arian, egunean-egunean egindako herri-hautuen arabera, gauzatzen den jardunbidea ere badela agertzen zuen aipatu ebazpenak.

Konstituzioa arbuia baguenen ere, Gernikako estatutuaren bitartez arnasberitu ahal izan genituen gure herriaren birika makalduak. Alde bik hitzartutakoa izaki, 1990ko erresoluzioaren mamari bagagozkio, garaiko baldintzen arabera izan zen estatutuaren onarpena. Hala ere, prozesu ireki baten hasiera bezala har zitekeen, eskubide historikoez baliatzea bideratu eta herriaren nahimenaren moldera aurrera egiteko bidea zabaltzen zuelarik. Hortxe iragana, oraina eta geroa uztarturik, gure nazioaren jarraitortasun politikoa gizakideen eskura jarritz. Egun, beharko litzatekeen bat etortze politikoa eta soziala lortu eta gero, aurrera egiteko tenorea dela ikusiko balitz, abiapuntu sendotik irten gaitezke. Ordutik hona bitarte egindako lanak ongi egin direlako, hain justu ere.

Zorion agurrak



Iker

Betetzen duzun urte bakoitza, zu gehiago ezagutzeko eta maitatzeko aukera bat da. Zorionak!



Maitane

Zorionak sorgiña! primeran pasa zure seigarren urtebetetzean! muxu erraldoi bat familiaren partez.



Idoia

Zorionak Idoia, muxu haundi bat zure lagunen partetik.



Nora

Zorionak gure etxeko printzesatxoari!! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.




Garazi

Zorionak printzesa! 6 muxu goxo familia osoaren partetik.



Naroa

Zorionak printzesa zure hirugarren urtebetetzean! Muxu handia guraso, amona, izeba-osaba eta lehengusuen partetik.



Izan

Zorionak moxolo!



Malen

Zorionak, familia guztiaren partetik!



Markel

8.000n mila muxu zure familiaren partetik!!! zorionak eta ondo pasa piraten irlan!!! muaka gizontxo.



Amets

Zorionak maitia! Dagoeneko bost urte! Muxu handi bat familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Paula Mena Garcia, maiatzaren 29an.
- Julen Eleizer Ugarte Diez, maiatzaren 24an.
- Oier Francisco Gimeno, maiatzaren 23an.



Heriotzak

- Antonio Manuel Moreno Medrano, ekainaren 4an, 54 urte zituela.
- Jose M^o Ezcurdia Arostegui, maiatzaren 31an, 78 urte zituela.
- Julia Ortiz Sanchez, maiatzaren 29an, 77 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 06	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 07	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 08	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 09	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 10	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 11	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 12	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aizpuru, Latxunbe Berri 11, Hernani, Tel.: 943 336 077

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Ariz.
- Logela alokatzen da pertsona bat edo pertsona eta haur batentzat Usturibile. 100 m. karratuko pisua. Leku onean. Prezio interesgarria. 657 535 299.

Salerosketak

- Estreinatua gabeko tableta saltzen dut. 7^o, Nevir markakoa. 200 euro negoziagarri. 680 983 527, Carlos.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin,

haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako 677 356 413.

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 404 015/606 661 048
- Pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketari lan egiteko prest Luis 698 469 929.
- Pertsona arduratsu eta esperientzia zabala duena pertsona adinduak edo gaixoak zaintzeko eskaintzen da. Tratu ona. 680 983 527, Carlos.
- Lana bilatzen dut interna edo externa bezala haur edo pertsona helduak zaintzeko. Esperientziarekin. Harremanetarako, 600 334 021.

- Gizona garraiolari, biltegizain edo eraikuntza edonolako lanak egiteko prest. Lan-arriku prebentzio ikastaroa egin. 657 535 299.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Ezzagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mañu Amutu, Añer Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

PARTEHARTZEA

Udalaren lokal hutsen eskaera

Elkarteek ekainaren 24a arte izango dute aukera

Udalak herriko elkarteek eskura jarri nahi ditu bere lokal hutsak. Irabazi asmorik gabeko elkarte zein taldeek egin dezakete eskaera udaletxeko erregistroan dauden eskabide orriak beteta. Gai honen inguruan informazio gehiago emateko, hitzaldia antolatu dute ekainaren 19an kultur etxean 19:00etan.



Pablo Barrio alkatea eta Alaitz Mendizabal Parte hartze saileko burua agerraldian.

TXINTXARRI

Asteazken eguerdian Udal Gobernuak udalaren lokal hutsak herritarren esku uzteko asmoa azaldu zuen. Pablo Barrio alkatea eta Alaitz Mendizabal Parte hartze batzordeburua izan ziren ekimena azaldu zuten gobernu kideak.

Hauen hitzetan, herriaren elkarte eta talde asko dago lanean eta jakina da denek ez dutela euren bilerak edota lanak egiteko egoitzarik.

Hau dela eta, udalak dituen lokal hutsak elkarte eta talde hauen eskutan utzi nahi ditu. "Beharrezkoa da elkarte hauek herrian egiten dutena eta hauek lanean jarraitzea sustatu nahi dugu".

Kasu askotan herrian dau-

den hutsuneak betetzen dituztela esan zuten udal ordezkariak eta funtsezkotzat jotzen dela esparru ezberdinetan egiten duten lana.

Eskaerak eta bilera

Lokalaren eskaera egiteko irabazi asmorik gabeko talde edo elkarte izan behar da eta Udaletxeko erregistroan dagoen eskaera orria bete. Ekainaren 24a izango da eskaera egiteko azken eguna.

Aurretik, informazio gehiago emateko udal ordezkariak bilera antolatu dute, ekainaren 19an 19:00etan Manuel Lekuonan.

Alaitz Mendizabalek aipatuenez, lehenengo eskaera

hau batez ere informazioa eskuratzeko izango da "Udaletik jakin nahi dugu zenbat diren lokala behar duten talde eta elkarteak baina baita zehazki jakin nahi dugu, zein lan egiten duten eta zein den bakoitzaren behar zehatza".

Erabilera mugatua izango dela ere aipatu zuten "bilerak etab. egiteko lokalak edo biltegi bezala erabiltzekoak izango dira soilik".

Era honetara, Udalak eskatzaileen zerrenda osatuko du eta esleipen prozedura bat jarriko du martxan. Prozedura honekin herriko elkarte, zein taldeei ahalik eta modu egokienean lokalen erabilera uztea ahalbidertuko du.

UDALA

IBI eta Zaborra zergak ordaintzeko epea

Zergen ordainketa helbideratu gabe dituzten zergadunen ordainketa-gutunak maiatzeko bigarren hamabostaldian bidali zirela jakitera eman du Udalak.

Jaso ez duenak, edota beste aleren baten beharra duenak, Udaletxeko hirugarren solairuan dagoen Zergabilketa bulego- ra jo dezake, edo 943 376 187 telefono zenbakira deitu, argibideren bat behar izanez gero. Azken eguna uztaileak 1a izango da.

Ordainketa Banku eta Aurrezki kutxetan egin daiteke, baita www.lasarte-oria.org web orrian ere (administrazioa - tramiteak on line - nire ordainketa on line).

Ordainketa helbideratuta duten herritarrei berriz, borondateko epearen azken egunean kargatuko zaie zergadun bakoitzak zehazturiko kontu korrontean, hau da, 2014ko uztailearen 1ean.

Azken egunetik aurrera, ordaindu gabeko erreziiboak dagokion errekguarekin, premiamenduzko prozeduraren bitartez exijituko dira.



HITZALDIA

Zortu pelbikoa indartzeko aukera

Emakumeen Zentroan asteazkenean Lasarte-Oriako Osasun Zentroko emaginak izan ziren eta zoru pelbikoa izan zuten hizpide.

Emaginek zoru pelbikoa zer den eta non dagoen azaldu eta hau ongi landuta egon ez gero, emakumek bizitzako hainbat garaitan izan ditzaketen arazoak ere aurkeztu zituzten. Hainbat ariketen bitartez hitzaldira hurbildu ziren emakumei haien zoru pelbikoa kokatzen lagundu eta hau nola landu dezaketen jakiteko teknika batzuk erakutsi zizkieten.

Honetaz gain, Osasun Zentroan martxan dagoen zoru pelbikoa indartzeko programa ere ezagutzera eman zuten. Herriko emakume guztiei irekitako saioak dira eta informazio gehiago nahi duenak Osasun Zentrora hurbiltzea besterik ez du.

IKASTAROA

Janari manipulatuak ikastaro berria

Elkolab enpresak, Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatuak ikastaro berri bat antolatu du, ostalaritzako sektoreari zuzendua Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiekin.

Ikastaroa ekainaren 25ean izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko gelan. 09:30etik 13:30ra izango da saioa eta prezioa 45 eurokoa. Prezio berezia izango dute langabetuek, 35euro.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko deitu OMC 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303.

HITZALDIA

Eskizofrenia ulertzen

Asteazkenean, Agifes Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen

Gipuzkoako elkarteak antolatuta Tomas Burutaran eta Karina Luengas doktoreek eskizofreniaren inguruko hitzaldia eskaini zuten Villa Mirentxun. Helburua eskizofreniaren ikuspegi orokorra eskaintzea zen, gaixotasuna hobeto ezagutzen eta ulertzen laguntzeko.

Hitzaldira hurbildu ziren herritarrek galderak egin ahal izan zituzten. Gaixotasunaren historia, diagnostika, jatorriak eta sintoma esanguratsuenak ezagutzeaz gain, botiken eta errehabilitazio prozesuen bitartez patologia nola eboluzionatu dezaken ere ikasi zuten Burutaran eta Luengas doktoreekin.



Zahartzaro aktibo eta osasuntsua

Eusko Jaurilaritzako Osasun Publikoko kideek, Udalaren babesarekin herritarrek zahartzaro aktibo eta osasuntsua izan dezaten Tipi-ttapa proiektua aurkeztu zuten astelehenan Villa Mirentxun. Udaleko sail ezberdin, Osasun Zentroko kide eta herriko elkarte ezberdinen arteko elkarlana sustatu nahi da hau aurrera eramateko.

Lasarte-Oriako Udalak zahartzaro aktibo sustatzeko eta batez ere, mendetasun egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsona adinduen autonomia sustatzeko asmoz Etorbizik finantzatuta ekintza plan bat landu du azken urtean.

Planean pertsona adinduen osasun maila hobetzea aurreikusten da eta horretarako, besteak beste, udalerrian Tipi-ttapa programa jarri nahi da martxan. Tomas Plazaola Osasun Publikoko eskualdeko koordinatzaileak aurkeztu zuen ekimena.



Aurkezpenaren erakundeetako kideekin, herriko hainbat elkarte ere izan ziren.

Plazaolak azaldu zuen moduan, beste herrietan martxan dagoen ekintza da, Umie-ta, Zumarraga edo Idiazabalen, esate baterako. Honetan, astean behin edo hilabetean bitan pertsona adinduek laguntzaile batzuekin batera ordu bete edo gutxiagoko ibilbide bat egiten dute, "bakoitzak hal duenaren arabera".

Programa hau burutzeko Udaleko sail ezberdinak elkarrekin lan egingo dute, baita Osasun Zentroko kideek ere.

Bestalde, laguntzaile edo bolondres lanak egiteko herritarrek behar du lirakete. Horretarako, herriko elkarteekin partehartzea ere garrantzitsua dela azpimarratu dute.

Baina Lasarte-Oriako programa garatzeko dago oraindik. Hau lantzeko hurrengo ekainaren 17an, asteartea goizeko 11:00etan Jubilatuen Etxean biltzeko deialdia egin dute. Era berean, interesatuak egon litezkeen beste elkartei gonbita luzatu dute.

Bola-jokoa iraganeko zaletasuna

Lasarte-Orian bolatoki eta bolari ugari izan dira, egun bolatoki bakarra eta talde txikia dago

Larunbatean, Lasarte-Orian Euskadi bola-joko txapelketa jokatu da Kirol guneko bolatokian. Gure herrian joko honetarako zaletasuna handia izan zen garai batean. Sagardotegi bakoitzean bolatokia zegoen eta bertan biltzen ziren herritarrek arratsalde ederra igarotzen.

TXINTXARRI

Golf klubean, sagardotegietan, baserrietan... Lasarte-Orian hainbat bolatoki zeuden antzinean eta zaletasun handia zegoen. Honen seinale prentsa eta liburuetan aurkitu dugun aipamena da. Sasueta-Txiki baserrian 1934. urtean, "Lasarte Oriako lehengo bola txapel-tza" burutu zen. Honetan herriko bolariak bakarrik parte hartu ahal zuten. Egund, bolatoki bakarra dago herrian kirol gunean eta gutxi batzuk dira ohiturari jarraikiz igandeetan bolatoki hurbiltzen direnak. Inaxio Otaegi eta Joxe Zapirain bolariekin bildu gara haien oroitzapen eta bola-jokoaren etorkizunaz mintzatzen.

Biak gazteak ziren bola lehenengoz jaurti zuten. "Baserrikoa naiz. Orduan, ondoko baserrian nire adineko mutil bat bazan eta bolatokia nolabait moldatzen zen. Edozein baserrian zeuden bola eta brillak. Jubenil mailan ginela, talde-txo bat batu eta Michelinek txapelketa batean parte hartu genuen," aipatu du Inaxiok.



Herritar ugari biltzen zen lehen bola-joko txapelketetan. Asteburu honetan ere, Euskadiko txapelketarekin horrela izatea espero da.

Zapianek, berriz, "Errekal-den bazeuden anai batzuk bolatan ibiltzen zirenak Esnaolatarrak eta hamabost uterekin, anaietako batek Hernanira eraman ninduen Gipuzkoako txapelketa jokatzera, 15 urte nituen. Añorgako lagun batekin joan nintzen eta azken bigarren geratu ginen."

Bolatokiak murriztu

Biek gogora ekartzen dituzte sagardotegietan zeuden bolatokiak, baita Michelin fabrika ondoan zegoena ere.

"Aste Santu inguruan, sagardoa saltzen jartzen zen baserrietan eta bolatokia prestatzen zen, toka ere. Jokatzeko zen eta gero basokadak edaten ziren".

"Horrelako azkenetarikoa Goiegikoa zen. Hipodromoan ere beste bat bazegoen," aipatu du Zapirainek.

"Azkorten ere bazegoen. Lau urte batzuk kendu zuten, Elo-

riko beheko baserrian zegoena," gehitu du Inaxiok.

Baina egund, Lasarte-Oriaren antzera Gipuzkoan herri gehienetan bat gutxienez dagoela aipatu dute.

Bolari onenatarikoak

Garai haietan Michelinek izen parte hartzen zen, Zubietan Joko Garbi elkarteak zegoen eta beste herrietan elkarteak izaten zituzten taldeak.

Zapirainek Michelinek lehen talde ederra zuela aipatu digu, "Lasarte-Oriako bolariak hobereenak ziren Regino Iraola, Ramon Rezola, Manuel Ollokiegi, Julian Etxabe, Iturbe, azkeneko ona Furundarena. Orduan baziren. Eta Gipuzkoan onenatarikoak ziren Ollokiegi eta Rezola".

"Saltzateko hiru anai ere ibiltzen ziren Elizegitarrek eta Gipuzkoan, Goierri aldean, ere Ugarteburutarrak ziren famatuak," gaineratu du Otaegi.

Apustuak

Bola-jokoan beste hainbat jokoen bezala, apustuak eta desafioak zeuden.

"Lehen tiratzen ari zela ere dirua jokatzeko zen. Batek bola jaurti eta norbaitek esaten zuten bost baietz, ezetz... orduan apustuak zeuden," aipatu du Otaegi eta erronkak ere egund ziren bere hitzetan, "kontatzen dutenez, Martzial Ugarteburu eta Esnaolak egin zuten bat. Oso apustu fuertea izan omen zen".

Gaur egund hori guztia galdu dela azpimarratu du Zapirainek, "orain bat ere ez. Xarma hori galdu du".

Eta honen harira, Zapirainek Klaudio Esnaolak egin-dako balentria aipatu du, "bederatz birla botatzen ikusi dudana bakarra. Hori txurro bat izan zen".

"Zortea da. Zortzi eta bederatz botatzea oso zaila da."

Etorkizuna

Baina garai horiek joan dira eta bolari gutxi daudela ere diote.

Lehen zaletasun gehiago zegoela eta txapelketetan 100etik gora parte hartzaile zirela. Egund, Otaegik aipatu legez, "taldeetan 10 kidek parte hartu dugu, aurtun 60 eta libre botatzen kontuan izanik 65. Binakakoan eta azken igandean 40 inguru ibili gara".

Hemen bola-jokoak gazteen artean indarrik ez duela adierazi digute. Goierri aldean, berriz, "momentu honetan jende asko hasi da Gabirín. Segurand ere bolari onak daude. Eredu honetan Urnietaokak dabilza ondo. Talde ona dago".

Ostadar SKT-ko taldeak hau sustatzeko ahaleginak egin baditu ere, egund ez dago gazteen talderik herrian. "Iturbe edo Etxaberekin ibili ziren gazteak badaude eta ongi ibiltzen direnak, baina..."

Otaegik jakitera eman duenez, "orain federazioan sartu direnak, gazte jendeak batetik bestera eraman daitekeen bolatoki portatila prestatu dute eta horrekin jaietan dagoen herri batera edo eskoletara doaz. Ordu beteko saioak edo egiteko."

Era berean, herritarrek animatzen dituzte bolan jokatzera. "norbaite interesatua egongo balitz, lehen bolari izandakoa edo bestela niri esatea dute. Jubilatuta bat ere ibili daiteke. Nirie kasuan, ez det uste kalterik egingen didanik," aipatu du Otaegik. Larunbatean izango den txapelketa hurbiltzera ere gonbidatzen dituzte herritarrek.

Denok dakigu azkeneko 70 urte hauetan, gure herriko gizartean, besteak beste, jolasaldirako ohiturak ere aldatuta nabarmena izan dutela. Adibide gisa, nire nerabe garaian bola-jokoa oso txertatuta zegoen gure artean, batez ere sagardotegi garaian; sagardotegi garaia zenez bolatokitian herritar asko eta asko elkartzen zen eta gure egokia zen elkartasuna sendotzeko ere.

Orain ez bezala, sagardotegi gehienetan bolatoki eder bat zegoen aldamean eta osagarri egokia zen arratsaldea pasatzeko, giro bikaina sortzen zen bere inguruan. Gehienetan erronda nor ordaindu jokatzeko zen nahiz tarteka trabesa txiki batzuek ere gurutzatzen ziren "lau par,

bost baietz" oihukatuz. Gaur egund, bolatokiak oso gutxituta badaude ere Lasarte-Orian oraindik ondo zaiindutako bolatoki bikain bat mantentzen da Michelingo kirol gunean.

Bolatoki eta sagardotegi gehienak baserrietan zeuden salbuespen batzuk ezik.

Nahiz gaur, bolatoki haiek guztiak desagertuak izan, bolatokiak zeuden baserri edo etxe haien izenak aipatuko ditut gogoan dituan heinean; aldi berean, baita garai haietan bertako familiako buru nor ziren ere.

Lehendabizi, Oriako Zelaialdeko etxeazpian zegoen sagardotegiaren bolatokia aipatzea egoki eta

bidezkoa da, Euskal Herrian zen sagardotegirik handiena, dotoreena eta txukunaren aldamean zegoenez, (berrogei eta bost upel zeuden bertan zein baino zein bikainagoak) ikusgarria, Brunet y Compañía Oriako oihala fabrika zen sagardotegiko eta bolatokitik jabea.

Honetaz gain, hauek ziren bolatokiak zeuden baserri edo etxeak eta buruak:

- Txartel-enea baserrian, Batista Santa Kruz.
- Basaundi baserrian, Miguel Barkaiztegi.
- Oriatxiki baserrian, Joxe Zuriarrain.

- Sausta baserrian, Miguel Zuaznabar
- Lartzabaleta baserrian, Martxiel Garmendia
- Arrieta-enea etxean, Eustaxi Arieta
- Zaltzate baserrian, Tomas Elizegi
- Mirakanpos baserrian, Inaxio San Sebastian
- Buenabista baserrian, Luis Sorrondegi
- Hipodromoko Dana-Ona jatxearen saihetsean (Salsamendin taberna deitzen genion, nagusi berriek Dana-Ona izena jarri aurretik), Salsamendi familiak.

Inguruko giroak eraginda bolari ospetsuak ere izan dira gure herrian urteetan zehar.

SEBASTIAN KEREJETA

Bolatokiak, jolas eta elkartoki



DBH1 eta DBH2 mailetako gazteek dantzari trebeak direla erakusteko aukera izan zuten asteazken goizean.



Besteak beste, LH1, LH2, LH3 eta LH6 mailetako antzerkiak ikusi dira aste honetan.

Antzerki eta dantza astea martxan

Haur eta gurasoek Manuel Lekuona bete dute

12. Antzerki eta Dantza astea hasi da. Asteartean LH6ko ikasleek egin zuten lehen emanaldia, egunero Landaberri ikastolako haurrek haiek dohainak erakutsi dituzte, gaur 22:00etan gazteen saioa izango da. Baina hau ez da bukatu hurrengo astean ere, hainbat emanaldi ikusteko aukera izango baita Manuel Lekuonan.

TXINTXARRI

Urduritasuna nagusi izan da aste honetan Landaberri ikastolako hainbat haur eta gaztetxoaren artean. Ikasurte amaiera iritsi da eta ikasitako erakutsi behar izan dute haien ikaskide eta gurasoen aurrean. Izan ere, 12. Antzerki eta dantza astea martxan

da Manuel Lekuona kultur-etxean.

Asteartetik ostegunera goiz eta arratsalde kultur-etxeko aretoa bete duten guraso zein haur eta gazteek maila ezberdinen antzerki zein dantzak ikusi ahal izan dituzte.

LH6 mailako haurrek eman zioten hasiera Gura/Gu/Gutarrek antzerkiarekin, asteazke-

nean LH3 mailako gaztetxoaren mimo ariketak izan ziren, baita DBH 1-3-koen antzerki eta dantza garaikide emanaldia ere. Dantza emanaldia goizez izan zen bakarrik.

Ostegunean LH1 eta LH2 mailako sukaldari eta afrikarrak izan ziren oholtzan.

Gaur berriz, gazte taldeen txanda izango da 22:00etatik aurrera. Dantza garaikidea eta Arturo Erregea antzerkia eskainiko dute.

Asteburuan indarrak batuko dituzte, hurrengo astean hainbat antzerki eta dantza saio eta Dantzaz Blai! emanaldia izango baitira



Zambrako Mari Carmen Vegas, Jon Maia, Kukukako Maider Oiarzabal, Marimotots, Porrotx eta Katxiporroretako Aitziber

Aniztasuna herriko pailazoekin

Kukuka eta Zambra dantza taldeak herriko pailazoekin, EOSekin eta Donostiako Orfeo Txikiarekin batera Euskal Herrian barrena egingo dute bira. Jon Maia idatzitako Abuela Maria Luisa kantarako dantza bat prestatu dute herriko bi dantza taldeek.

Honetan Maider Oiarzabal eta Mari Carmen Vegasek azaldu bezala, euskal dantza eta

sevillanak uzartu dituzte. "Ez da lan erraza izan baina oso pozik gaude azken emaitzarekin".

Ekainaren 13an Gasteizen Principal antzokian, 14ean Bilbon Euskaldunan, Iruñean Baluartean izango dira 18an eta 20ean Donostian, Kursaaan bi saio egingo dituztela aipatu du Joxe Mari Agirretxek.

Jon Maia abestiak izandako ibilbidearekin

oso pozik dago "Euskal Herrian milaka umek dituzte abuelo eta abuela. Normalizaziorako balio izan du abestiak. Herriko dantza taldeek pailazoekin egindako elkarlan hau, urteetan bereziak egon diren komunitateak behingoz elkartzeko" balio dutela esan du.

Ekimena Lasarte-Orian dagoen aniztasunaren adibide dela aipatu dute.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Agenda

Larunbata 07, 09:30etik 13:30era, Villa Mirentxuko trinketea



Etorkizuna lantzeko Open Space-a

Bakea eta elkarbizitza jardunaldien barruan, Tokiko esparrutik bakea erakitzen ekimena antolatu da. Lehenik, ekimenaren mekanika azalduko da aurkezpenean. Honetan herritarrek Open Space batean gai batzuk erabakiko dituzte, ondoren bi mahai inguru txandatan hitz egiteko. Amaieran, ideia guztiak partekatu eta ondorioak eskainiko dira.

Osteguna 12, 21:00etan
Helduen antzeztan eta dantza garaikide koreografiekin gozatzeko aukera.

Goizeko saioak ikastetxei zuzendutako. Arratsaldekoak gurasoentzat, sarrera, 1 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA, ARTIZAR ETA GURE-ETXEA TABERNA

Gaur azken eguna

Bola-jokoari lotutako argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina amaiera arte

Euskal Herriko 2. Batukaden Topaketako argazki erakusketa ikusgai izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Gaur azken eguna

Brancussi akademiako ikasleen IX. Margo erakusketaz gozatzeko aukera.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 06, 22:00etan

Drakken eta Unset taldeen kontzertuz gozatzeko aukera. Doan.

Larunbata 07, 22:00etan

Mamba Beat taldearen elektro pop-az gozatzeko aukera. Sarrera, 5 euro.

Larunbata 07, 00:00etan

We Love La dolce Vita dj set elektro saioa izango da.

Asteazkena 11, 20:30ean

Adam Bomb gitarra jole amerikarraren kontzertua izango da. Bere kantari eta

ACDC, KISS edo VAN HALEN taldeetako doinuak ere eskainiko ditu. Sarrera aurretik 7 euro, egunean 10 euro.



Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 07, 00:00etan

Maribel Salasen umorezko bakarrizketa Xpressionk-ak antolatzen duen Encomediados ekimenaren barruan.

Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 06, 22:00etan

Gazteen taldeek dantza garaikidea emanaldia eta Arturo erregea antzerkia eskainiko dute.

Astelehena 09, 10:45ean eta 19:00etan

Landaberriko LH4 eta LH5 mailako gaztetxoek antzerkiak ikusteko aukera.

Asteartea 10, 11:00etan eta 19:00etan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe eta Zubietako taldeen antzerkiak ikusteko aukera

Asteazkena 11, 12:30ean

DBH3-4-ko gazteen antzeztan eta dantza garaikide emanaldia izango dira.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra

Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Larunbata 07, 22:00etan

Benito Lertxundik bere taldearekin batera "Oroimenaren oraina" azken diskako doinuak eskainiko ditu. Sarrera, 15 euro.

Herritarren txokoa

Gure Esku Dago hamaiketako

Igandean Gure Esku Dago ekimenak antolatutako giza-katean 700 herritar baino gehiagok parte hartuko dute.

Herriko lantaldean antolakuntza lanetan dauden kideek jakitera eman dutenez, Uharteko Arakilen hamaiketako erraldoia egin nahiko litzateke lasarteoriatar guztiak jai giro ederrean. Jendeak etxetik eramandakoa otartekoak etab. elkarbanatzea proposatzen dute.

Ezustekoren bat ere egongo dela aipatu dute eta jendea parte hartzea deitzen dute.

Sorgin dantzako entseguak

San Pedro jaietarako hila bete gertatzen da eta Sorgin dantzako prestakuntzak hasi dituzte Ttakun Kultur Elkarte lagunek. Eta guztia ekainaren 27an prest egoteko entseguen hasi da.

Lasarte-Oria giroan sartzeko, entseguak astearte eta ostegunetan izango dira Okendo plazan, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Azken saioa ekainaren 26an izango da.

Euria eginez gero, antolatzaileek jakin arazten dute Landaberri-

Garaikoetxea eraikinean egingo liritekeela saioak.

Ttakun elkarteak herritarrek gonbidatzen ditu entsegetara hurbildu eta ekintzan parte hartzera.

Soka-dantza entseguak

Erketz EDT eta Erketzeko lagunak San Juan egun bezperako soka-dantza prestatzen hasi dira.

Entseguak astelehenero izango dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxe Zumaburuko eraikinean 20:00etatik aurrera.

Taldeak herritarrek gonbidatzen ditu soka-dantzan parte hartzera.

Galdutako pultsera

Haur baten urrezko pultsera bat aurkitu dut inskripzio bat dauka. Deitu 620179188 telefonora. Izaskun

Galdutako gauzak

Azkorteko Erromeria egunean Ttakun elkarte kideek Quechua markako txaleko beltza, L tamainakoa aurkituzten arkupeko bankuetan.

Ttakuneko bulegoan dago jantzia beraz galdu duenak harrera orduan jaso dezake.

Eskutitza

Prieto anderearen "zintzotasuna eta ardura"

2011ko udal hauteskundeetako emaitzen ostean, bilera erronda bat egin nuen gainontzeko alderdiekin. Bilera hauen helburua akordioa lortzea zen PSEk, alberdi bozkatuena izanda, alkatetza eskura zezan. Bereziki harrigarria izan zen Ana Isabel Prieto, Lasarte-Oria Herritar Plataformako kidearekin izandako bilera. Nire bai-menik gabe bilera hura grabatzeaz gain, etengabe eskatzen zidan "zintzotasuna eta ardura". Denok dakigu ondoren zer gertatu zen.

Egun Prieto anderea da Zerbitzu batzordeburua. Zerbitzu buru ausentea, izan ere, 2013an hiru aldiz soilik deitu zuen batzordea, hau hila betero ospatu beharko litzateke. Maiatzaren 29an deitu du 2014ko lehenengo bilera, hau da, 8 hilabete dira Prieto andereak ez duela ez informazio ezta azalpenik ematen.

Gainera larriena da maiatzeko ple-noan galdera eta erreguen txandan, honen inguruan galdetu eta ez ziola lotsarik eman bere jokaerak. Prieto anderea, non dago zure zintzotasuna eta ardura? Nola eskatzen dituzu zuk

zeuk ez dituzunak besteei? Zuk ez dituzu zure komisiok deitzen. Ple-noan moziorik ez duzu aurkeztu, ez osoko zuzenketa ezta partziala ere aurrekontu edota udal ordenantzei. Hiru urte hauetan ez duzu galdera edo erregurik egin. Hori bai, oso pertsona leiala zarela erakutsi duzu. Baina EHBilduren interesekiko oso leiala, izan ere guztia beraiekin bozkatzen ari zara.

Jesús Zaballos
Lasarte-Oriako PSE-EE
(Erredakzioan euskaratuta)

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

